



GIPUZKOAKO FORU OGASUNA

ZENTSUAREN GIDA

030 EREDUA

2025-02-25(e)an eguneratua

AURKIBIDEA

1. IFZ ZENBAKIA ESKATZEA (PERTSONA FISIKOAK)	2
1.1. ESPAINIAKO NAZIONALITATEA	2
1.1.1. ESPAINIAKO LURRALDEAN EGOILIARRA	2
1.1.1.1. 14 urtetik beherakoa (K20)	2
1.1.1.2. 14 urtetik gorakoa (NANa)	2
1.1.2. ESPAINIAKO LURRALDEAN EZ-EGOILIARRA	3
1.1.2.1. Badu NANa indarrean	3
1.1.2.2. Ez du NANik indarrean (L20)	3
1.2. ESPAINIAKO NAZIONALITATERIK GABE	4
1.2.1. Badu AIZ indarrean	4
1.2.2. Ez du AIZrik indarrean (M20)	4
2. 030 EREDUA (ALTA / ALDAKETA)	5
2.1. ALTA	5
2.2. ZERGA HELBIDEA ALDATZEA	5
2.3. BESTELAKO DATUAK ALDATZEA	6

1. IFZ ZENBAKIA ESKATZEA (PERTSONA FISIKOAK)

1.1. ESPAINIAKO NAZIONALITATEA

1.1.1. ESPAINIAKO LURRALDEAN EGOILIARRA

1.1.1.1. 14 urtetik beherakoa (K)

Adingabeek Espainiako Poliziari eska diezaiokeste NANA, hala nahi izanez gero, edo, bestela, Zerga Administrazioari eska diezaiokeste behin-behineko IFZ bat emateko, K letraz hasiko dena, Espainiako Barne Ministerioak emandako NANA lortu arte.

Gipuzkoako Foru Ogasunari zuzenean eskatzen bazaio adingabearen egoitza fiskala lurralde horretan dagoelako, honako hauek **aurkeztu** beharko dira:

- 030 ereduak, behar bezala beteta eta legezko ordezkariak sinatuta.
- Legezko ordezkariaren IFZ (aita edo ama edo legezko tutorearena).
- Familia liburua edo adingabearen jaiotza agiria (familia liburuaren kasuan, bi orrialde hauek: liburuaren titularra edo titularrak zein diren erakusten duena, eta IFZ zein seme-alabarentzat eskatzen den adierazten duena).
- Erantzukizunpeko adierazpena, legezko ordezkariak sinatua, adingabeari aurrez IFZ zenbakirik ez zaiola esleitu esan behar duena.

Aurkezteko lekua, jarraibideak eta bestelako datuak: kontsultatu [030 Gipuzkoa](#)

14 urtetik beherakoak identifikatu ahal izateko zerga izaerako edo zerga ondorioak dituzten harremanetan, adingabearen datuak agertu beharko dira, IFZ barne, bai eta haren legezko ordezkariarenak ere ([47/2013 FDaren](#) 26. artikuluko 3. atala).

Gipuzkoako Foru Ogasunak zuzenean ematen duen IFZk balioa izango du titularrak NANA lortu arte. **Lortzen duenean, Gipuzkoako Foru Ogasunari jakinarazi behar dio, ematen zaionetik bi hilabeteko epean gehienez**, 030 ereduak aurkeztuz ([47/2013 FDaren](#) 28. artikulua).

1.1.1.2. 14 urtetik gorakoa (NANA)

Espainiako nazionalitatea duten pertsona fisikoen IFZ beren Nortasun Agiri Nazionalak (NANak) duen zenbakia da, Espainiako Barne Ministerioak ematen duena.

Pertsona horrek NANA badu eta Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zergapekoen Erroldan alta emanda ez badago, alta eskatu beharko du 030 ereduaren bitartez.

Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zergapekoen Erroldan alta emanda dagoen ala ez kontsulta daiteke Zergabideko [ERROLDA DATUAK](#) atalean.

Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu “030 ereduak / Datu basean alta” Atala.

1.1.2. ESPAINIAKO LURRALDEAN EZ-EGOILIARRA

1.1.2.1. *Badu NANA indarrean*

Bere Identifikazio Fiskaleko Zenbakia Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia izango da.

Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zergapekoen Erroldan alta emanda ez badago, alta eskatu beharko du 030 ereduaren bitartez.

Errolda horretan alta emanda dagoen ala ez kontsulta daiteke Zergabideko [ERROLDA DATUAK](#) atalean.

Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu “030 eredua / Datu basean alta” Atala.

1.1.2.2. *Ez du NANik indarrean (L)*

Atzerrian bizi diren herritar espainiarrek ez dute NANik eduki behar Espainiara sei hilabetetik beherako epe baterako etortzen badira, salbu eta zerga izaerako edo zerga ondorioak izango dituen eragiketa bat bertan egin behar dutenean.

Kasu horretan, bere borondatez lortu dezakete NANA, kontuan hartuta Nortasun Agiri Nazionala (NAN) lehen aldiz eskuratzea edo berritzea Espainian bakarrik egin daitekeela, Espainiako Poliziak nortasun agiria emateko dituen bulegoetako batera interesduna bertaratuta.

NANA ez edukitzekotan, eta eragiketa Gipuzkoan egitekoa bada, L letraz hasitako IFZ bat emateko eskatu ahal izango dio Gipuzkoako Foru Ogasunari. Honako hauek aurkeztu beharko dira:

- 030 eredua, beteta eta interesdunak edo behar bezala ahaldundutako ordezkariak sinatuta.
- Espainiako pasaportea, indarrean.
- Egoitza atzerrian duela frogatzen duen agiria.
- Erantzukizunpeko adierazpena, interesdunak edo behar bezala ahaldundutako ordezkariak sinatua, interesdunari aurrez indarrean dagoen IFZ zenbakirik ez zaiola esleitu esan behar duena.
- Zerga izaera edo zerga ondorioak dituen eragiketaren justifikazioa.
- Pertsona baimenduak aurkeztutako eskaeren kasuan, aurreko guztia aurkeztuko da, baita baimena egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

Aurkezteko lekua, jarraibideak eta bestelako datuak: [030 Gipuzkoa](#)

Gipuzkoako Foru Ogasunak zuzenean ematen duen IFZk balioa izango du titularrak NANA lortu arte. **NANA geroago lortzen edo berritzen badu, Zerga Administrazioari jakinarazi behar dio bi hilabeteko epean gehienez, hura lortzen edo berritzen denetik aurrera** ([47/2013 FDaren](#) 28. artikulua).

1.2. ESPAINIAKO NAZIONALITATERIK GABE

1.2.1. BADU AIZ INDARREAN

Identifikazio Fiskaleko Zenbakia Atzeritarraren Identifikazio Zenbakia izango da.

Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zergapekoen Erroldan alta emanda ez badago, alta eskatu beharko du 030 ereduaren bitartez.

Errolda horretan alta emanda dagoen ala ez kontsulta daiteke Zergabideko [ERROLDA DATUAK](#) atalean.

Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu “030 eredua / Datu basean alta” Atala.

1.2.2. EZ DU AIZrik INDARREAN (M)

Espainiako nazionalitatearik ez duten herritarrek ez badute AIZ zenbakirik indarrean, Espainiako Poliziari eskatu beharko diote; AIZ izateko derrigortasunik ez badute, edo AIZ eskatu arren Espainiako Poliziak jaulkitzen ez badu, Gipuzkoako Foru Ogasunari eskatu ahal izango diote M letraz hasitako IFZ bat emateko, salbuespen gisa eta justifikatuta, Gipuzkoan zerga izaerako edo zerga ondorioak dituzten eragiketak egin behar dituztenean. Honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Espainiako Poliziari AIZ eskatu izanaren agiria, edo Espainiako Poliziaren agiria, AIZ izateko derrigortasun eza ziurtatzen duena.
- 030 eredua, beteta eta interesdunak edo behar bezala ahaldundutako ordezkariak sinatuta.
- Jatorrizko nazionalitatearen pasaporteak.
- Egoitza atzerrian duela frogatzen duen agiria.
- Erantzukizunpeko adierazpena, interesdunak edo behar bezala ahaldundutako ordezkariak sinatua, interesdunari aurrez IFZ zenbakirik ez zaiola esleitu esan behar duena.
- Zerga izaerako edo zerga ondorioak dituen eragiketaren justifikazioa.
- Pertsona baimenduak aurkeztutako eskaeren kasuan, aurreko guztia aurkeztuko da, baita baimena egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

Aurkezteko lekua, jarraibideak eta bestelako datuak: [030 Gipuzkoa](#)

Gipuzkoako Foru Ogasunak zuzenean ematen duen IFZk balioa izango du titularrak NANA lortu arte. **NANA geroago lortzen edo berritzen badu, Zerga Administrazioari jakinarazi behar dio bi hilabeteko epean gehienez, hura lortzen edo berritzen denetik aurrera** ([47/2013 FDaren](#) 28. artikulua).

2. 030 EREDUA (ALTA / ALDAKETA)

2.1. ALTA

Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zergapekoen Erroldan alta emanda dagoen ala ez kontsulta daiteke Zergabideko [ERROLDA DATUAK](#) atalean.

Errolda horretan ez badago, alta eskatu beharko du, eta honako hauek aurkeztu:

- 030 eredua, behar bezala beteta eta interesdunak sinatuta
- Interesdunaren IFZ txartela (NAN, AIZ, IFZ: K, L edo M letrak)
- Hala badagokio, ereduan adierazitako datuak egiaztatzen dituen dokumentazioa (egoitza fiskala Gipuzkoan, egoera zibila, araubide ekonomikoa).
- Pertsona baimenduak aurkeztutako eskaeren kasuan, aurreko guztia aurkeztuko da, baita baimena egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

Epea

Edozein unetan aurkeztu ahal izango da.

Zerga helbidea

- PFEZren zergaduna: interesdunak Espainian duen zerga helbidea jasoko da.
- Ez-egoiliarra: bere zerga helbidea Gipuzkoako ordezkariarena izango da, edo, ondasun higiezinaren etekinak lortzen badira, Gipuzkoako ondasun higiezinarena. Halakorik ezean, "Atzerriko helbidea" laukia markatuko da "Zerga helbidearen", eta atzerriko datuak beteko dira.

Aurkezteko lekua, argibide gehiago eta bestelako datuak: [030 Gipuzkoa](#)

2.2. ZERGA HELBIDEA ALDATZEA

Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zergapekoen Erroldan zerga helbidea aldatu behar bada, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- 030 eredua, helbide berria sartuta eta interesdunak edo hark Gipuzkoako Ogasunaren aurrean izendatutako ordezkariak sinatuta.
- Zerga helbidea aldatzen bada Gipuzkoatik kanpoko beste lurralde batera, edo beste lurralde batetik Gipuzkoara, helbide berriaren erroldak emandako ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko da (gehienez ere, ziurtagiria eman eta hiru hilabeteko epean).
- Aldaketa beste Estatu batera egiten bada, Kontsuletxeko Bulegoak emandako bizileku-ziurtagiria (atzerrian bizi den 1. urtea bada) edo atzerriko administrazioak emandako ziurtagiria, egoitza fiskala jasotzen duena.

Gipuzkoako Foru Ogasunean inskribatuta ez dagoen ordezkari batek aurkeztutako eskaeren kasuan, aurreko guztia aurkeztuko da (interesdunak sinatuta) eta, gainera, ordezkariaren frogagiriak aurkeztuko dira.

Aurkezteko lekua, jarraibideak eta bestelako datuak: [030 Gipuzkoa](#)

2.3. BESTELAKO DATUAK ALDATZEA

Gipuzkoako Foru Ogasuneko Zergapekoen Erroldan dauden bestelako datuak aldatu behar badira (zerga helbidea ez direnak), honako hauek aurkeztu beharko dira:

- 030 ereduak, datu berriak sartuta eta interesdunak edo hark Gipuzkoako Ogasunaren aurrean izendatutako ordezkariak sinatuta.
- Izena aldatu edo AIZ NAN bihurtu bada, aldaketa hori egin dela erakusten duen agiria aurkeztu beharko da.
- Bestelako aldaketan (egoera zibila, araubide ekonomikoa) frogagiriak.

Gipuzkoako Foru Ogasunean inskribatuta ez dagoen ordezkari batek aurkeztutako eskaeren kasuan, aurreko guztia aurkeztuko da (interesdunak sinatuta) eta, gainera, ordezkartzaren frogagiriak aurkeztuko dira.

Aurkezteko lekua, jarraibideak eta bestelako datuak: [030 Gipuzkoa](#)